

ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030




ESKOLA
AGENDA
2030
energia

2. BULETIN ELEKTRONIKOA

ESKOLAKO GALDARA-GELARI BURUZKO SAIOA

Eskolan energia gehien kontsumitzen duen arloa berokuntza da. Hori dela eta, ikasleek eskolan behar den ura berotzeko sistema hobeto ezagutzeko asmoz, udalari galdara-gelari buruzko informazio saio bat antolatzeke eskatu zioten. Udaleko Imanol San Sebastian teknikariak ikasleei galdarari buruzko azalpenak emateaz gain, eskolako berokuntza sistemaren inguruko funtzionamendua erakutsi zien.



UDAL FOROA

Martxoaren 6an, eskolako eko-ordezkariek, EA2030eko irakasle koordinatzaileak, alkateak eta ingurumen zinegotziak ikasturte honetako lehenengo udal foroan parte-hartu zuten. Jarraian, bertan landutakoak zehaztu dira:

- Ikasleek ikasturte honetan orain arte egindako lana aurkeztu zuten.
- Udal ordezkariak iazko azken udal-foroan (2023ko ekainaren 13an) ikasleek egindako eskaeren inguruan herri mailan egon diren aldaketak azaldu zituzten eta baita aurreikusten diren bestelako hobekuntzak ere.
- Ikasleek eta udal ordezkariak eskola eta Udalaren artean energia aurrezpenaren eta energia berriztagarrien gaian elkarrekin martxan jarri daitezkeen ekimenak adostu zituzten.



ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030



ESKOLA
AGENDA
2030
energia

2. BULETIN ELEKTRONIKOA

HIRUGARREN HIRUHILEKOAN EMANGO DITUGUN PAUSOAK:

- Azken udal foroan udal arduradunekin adostu genuen moduan, energia aurrezteko eta behar dugun energia iturri berriztagarrietatik etor dadin bultzatzeko asmoz, herritarrei zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat antolatu nahi dugu.
- Eskolako teilatuan duela zenbait urte jarri ziren plaka fotovoltaikoen funtzionamenduari eta etorkizuneko erabilerei buruz gehiago jakiteko asmoz, udal arduradunek informazio zehatza erraztuko digute eta informazio hori aztertuko dugu.
- Gure eskolan energia arduraz erabiltzeko asmoz, dagokion jarraipena eta sentsibilizazio-lana egingo dugu.
- Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, LH 3. mailakoak Illarra taldekoek zaintzen duten baratzeria bisita egingo dugu eta baita Udalaren aisia-baratzeetara ere.

